



Euskal Herriko zerua miniaturan

Oso-osorik euskaraz idatzitako eta gure paraleloan, hau da, 43º-ko ipar latitudean kokatuta dagoen lehen planisferioa da.

Munduari egindako lehen itzuliaren 500. urteurrena dela-eta sortutako planisferioa da.

Juan Sebastian Elkano euskal itsasgizonak 1522an amaitu zuen Lurrari egindako lehen zirkunbalazioa. XVI. mendeko nabigatzaile haiek lotura handia zuten astronomiarekin; izan ere, bidaiak handi haietan orientatu ahal izateko, izarrak ezagutu behar zituzten. Horretarako, hainbat tresna erabiltzen zuten: astrolabioa eta itsasorratza, adibidez.

Gaur egun, berriz, planisferioak erabiltzen ditugu gaueko gure zerua ezagutzeko eta zeruko mugimenduak ulertzeko. Horregatik, munduari egindako lehen itzuliaren 500. urteurrenarekin bat eginez, Aranzadi Zientzia Elkartek, Elkano Fundazioarekin batera eta Kutxa Fundazioaren finantzaketarekin, Euskal Herriko zeruaren lehen planisferio hau sortu dugu: zehazki, 43º-ko ipar latitudean kokatua eta oso-osorik euskaraz idatzia.

Kutxa Fundazioa ordezkatzuz, Iñigo Atorrasagastik prentsaurrekoan azaldu zuen “Elkano Euskal Planisferioaren bitartez amankomunak diren eta guztiz partekatzen ditugun balore eta helburuak ditugu. Alde batetik, zientzia eta astronomiaren sustapena bilatzen dugu eta baita gizartean zientzia hedatzea. Eta bestetik, Planisferioaren bitartez egingo diren aire libreko ekintza eta behaketetan, kontaminazio luminikoaren inguruan daukagun arazoaren inguruan gizartea kontzientzitzen saiatuko gara, Kutxa Fundazioaren ildo estrategikoetako bat jasangarritasuna, bere osotasunean, izanda”.

Elkano Fundazioaren izenean, Rafa Zulaika proiektu burua hau azpimarratu zuen aurkezpenean: “Lehen zirkunbalazioaren urtemugaren motibaziotik sortu zen Aranzadirekin daukagun elkarlana, eta ezagutza berria sortu eta lankidetzaren bidez gizarteari zabaltzea da gure xedea”.

Illo horretan, gainera, nabarmendu du zientziak eta teknologiak zeregin garrantzitsua izan dutela gure gizartean, eta halaxe izango duela aurrerantzean ere.



Zer da planisferio bat?

Planisferio bat zera da: plano batean proiektatutako zeru sabai bateko izarren mapa bat, konstelazioak eta izarrak ezagutzeko erabiltzen dena. "Proiektzio bat denez, ezinezkoa da zehatz-mehatz adieraztea izarren posizioak; izan ere, ertzetatik gertu, konstelazioak zertxobait deformatuta agertzen dira", azaldu zigun Virginia García, Aranzadi Zientzia Elkarteko Astronomia Saileko zuzendariak.

Hala, gure zerura begiratzen dugunean ikusten ditugun izar guztiak identifikatu ahal izango ditugu; baina baita beste hiri batzuetatik ikusten direnak ere: Madril, Paris, Londres, Erroma, New York, Vancouver, Jerusalem, Beijing, Tbilisi, Sapporo eta beste batzuk. Izan ere, horiek ere gure paralelo berean daude. Hala, ikuspegi nazioartekoagoa izango dugu, eta bat dator Magallanes-Elkano espedizioaren izaera unibertsalarekin.

Asmo handiko proiektua

Virginia Garcia zuzendariak azaldu zuenez, egitasmo hau da Aranzadiko astronomia taldeak esku artean inoiz izan dituen asmo handieneko proiektuetako bat; "honen moduko planisferio bat egin beharra zegoela ikusten genuen, halakorik ez baitzegoen gure paraleloan eta gure hizkuntzan".

Bi funtzio nagusi ditu sail horrek: batetik, Gipuzkoako astronomoen arteko topagune bihurtzea, beren esperientziak partekatu eta emaitzak aurkeztu ahal izateko; eta, bestetik, espazioko zientzien hedapena sustatzea, behaketa publikoen, hitzaldien eta prestakuntza tailerren bidez.

BERRIA egunkariaren laguntza

Planisferioa BERRIA egunkariaren bidez banatuko dute, uztailaren 16tik aurrera, prezio berezian BERRIALaguntzat. Irati Azkueren hitzetan, "ingurumenari eta zientziari lotutako jakintza euskaraz hedatzeko ahaleginari zabalkundea eman nahi dio BERRIAk ere, jendeak zerua ere euskaraz irakur dezan sustatu. Gure lana, BERRIArena alegia, zientzialariek landutakoa lau haizeetara zabaltzea da kasu honetan."

Baina, horrez gain, liburu dendetan eskuragarri izango da uztailaren 19tik, astelehenetik aurrera.



El cielo de Euskal Herria en miniatura

Se trata del primer planisferio escrito completamente en euskera y ubicado en nuestro paralelo, en la latitud 43º Norte.

Un planisferio creado con motivo de la celebración del 500 aniversario de la primera vuelta al mundo.

El marino vasco Juan Sebastián Elcano concluyó la primera circunvalación al globo terráqueo en 1522. Aquellos marinos del siglo XVI vivían muy vinculados a la astronomía; necesitaban conocer las estrellas para orientarse durante sus grandes viajes. Para ello, utilizaban herramientas como: el astrolabio o el compás náutico.

En la actualidad, para conocer bien nuestro cielo nocturno y entender los movimientos celestes utilizamos los planisferios. Por eso, con motivo de la celebración del 500 aniversario de la primera vuelta al mundo, la Sociedad de Ciencias Aranzadi junto a Elkano Fundazioa y la financiación de Kutxa Fundazioa hemos creado el primer planisferio del cielo de Euskal Herria, concretamente en la latitud 43º Norte, escrito completamente en euskera.

En representación de la Fundación Kutxa, Iñigo Atorrasagasti explicaba en rueda prensa que con esta ayuda “compartimos objetivos y valores comunes con Elkano Euskal Planisferioa. Por un lado, buscamos impulsar la ciencia y la astronomía, así como la difusión de la ciencia en la sociedad. Por otro lado, gracias a las actividades al aire libre y observaciones que se realizarán con este planisferio, trataremos de concienciar a la sociedad sobre la contaminación lumínica, siendo la sostenibilidad una de las líneas estratégicas de Kutxa Fundazioa.

Por parte de la Fundación Elkano Rafa Zulaika, responsable de proyectos expresaba que “la oportunidad que genera la efeméride de la primera circunnavegación para crear nuevo conocimiento y difundirlo a la sociedad a través de redes de cooperación, son las razones que nos motivan para colaborar con Aranzadi.

En este sentido, destacar también, que la ciencia y la tecnología han jugado y siguen jugando un papel importante en el devenir de nuestra sociedad”.



¿Qué es un planisferio?

Un planisferio es un mapa estelar de la bóveda celeste proyectada en un plano que se emplea para el reconocimiento de estrellas y constelaciones. “Al ser una proyección no es posible representar con total exactitud las posiciones de las estrellas, ya que cerca de los bordes las constelaciones aparecen ligeramente deformadas” explicó Virginia García, directora del departamento de Astronomía de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

De esta manera podremos identificar todas las estrellas que vemos cuando miramos nuestro cielo. Pero también las que se observan en ciudades como Madrid, Paris, London, Roma, New York, Vancouver, Jerusalem, Beijing, Tbilisi, Sapporo entre otras, ya que se encuentran en el mismo paralelo que el nuestro. “Así, podremos tener una visión más internacional que se asemeja al carácter universal de la expedición Magallanes-Elkano”, apuntaba Irurzun.

Proyecto ambicioso

Virginia Garcia explicaba que este proyecto es uno de los más ambiciosos en los que ha estado involucrado el equipo de astronomía de Aranzadi “veíamos la necesidad de realizar un planisferio como este porque no existía ninguno de nuestro propio paralelo, ni en nuestro idioma”.

Este departamento tiene dos funciones principales: servir de punto de encuentro para los astrónomos ciudadanos de Gipuzkoa, donde pueden compartir sus experiencias y presentar sus resultados; Y fomentar la difusión de las ciencias del espacio a través de observaciones públicas y charlas y talleres formativos.

Colaboración con Berria egunkaria

Este planisferio será distribuido a través de Berria Egunkaria a partir del 16 de julio, con un precio especial para sus suscriptores (BERRIAlagunak). En palabras de Irati Azkue “BERRIA también quiere difundir el conocimiento relacionado con el medio ambiente y la ciencia en euskera, y de esta manera, promover que la gente lea el cielo en euskera. Nuestro trabajo, el de BERRIA, en este caso es difundir el trabajo de los científicos a los cuatro vientos.

Pero además, se podrá adquirir en las librerías a partir del lunes 19 de julio.